

Eskolak era askotakoak eta dinamikoak egiten saiatzea, eta ariketa bakarrari denbora luzeegia ez ematea: hobe da hainbat saiotan erreparatzea, eskola bakarrean denbora luzea ematea baino. Ikasleak dira protagonista eta eragile nagusiak.

Oso garrantzitsua da jarduera guztietan oso gai soilak hartzea abiapuntu gisa, ikasleak erantzuten badakizkienak, haren autoestimua indartzeko eta haren gaitasunak ahal beste garatzeko.

Arestian deskribatutako oinarritzko eskemaz gain, zenbait eskola beste eskema batekin egingo dira, eskolari dinamismoa emateko eta ikasleen arreta eta interesa mantentzeko.

Honako gaitasun hauek garatzea: esploratzea, sailkatzea, susmatzea eta susmoa aldatzea.

4.1. PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK

Xakearen irakaskuntzan printzipio pedagogiko ugari aplika badaitezke ere, honako hauek lehenesten ditugu guk:

- Ikasleak izatea protagonista nagusiak.
- Ikasleek beti lortzea honako hau:
 - o Arrakasta pixka bat:
 - Helaraztea guztiok izan gaitzkeela JOKALARI ONAK, eta, horretarako, ez nekatzea onetakoak izaten irakasteaz (adibidez, xakelari onek horrela egiten dute... GUK ERE AHAL DUGU, HOR GAUDE ETA BADA KIGU EGITEN.
 - Bilatzea zer egiten duten ondo, eta gure eskoletan azpimarratzea. Horrela, motibatu egiten ditugu, gai sentitzen dira, eta ikasten eta hobetzen jarraitu nahi dute.
 - o Akatsetik ikastea. Hiru fase igaro behar dira:
 - Saioa eta akatsa: zertan huts egin den aztertzen irakastea. Nola egiten da ondo?
 - Kontzentratu eta hasten naiz ondo egiten, baina kale egiten dut oraindik.
 - Automatismo bihurtzen da.

Asmoa ez da xake-jokalariak izatea, baizik eta jokatzeko ondo pasatzea eta haien gaitasun logiko-matematikoak, hizkuntzakoak, sozialak eta emozionalak indartzea.

Gure ikasleren batek ikusten badu gogoko duela lehiaketatan jokatzeko eta lehiatzea, xake-klubetara bideratuko dugu.